

## RES. 61/24/12/12

---

**EUSKADIKO KIROL PORTUAK ERAKUNDEKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, 2024KO APIRILAREN 19KOA, LEKEITIOKO PORTUAREN BARRUAN ZENBAIT AMARRALEKUTAN, PARKEKO PANTALANEAN ETA BUIA ALDEAN ALDAKETAK EGITEA ONARTZEKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEN DION EBAZPENAREN KONTRA (RES. 37/24/11/12) AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EZESTEN DITUENA, ETA ALDAKETA HORIEK GAUZATZEA ONARTZEN DUENA.**

### **1. Egitateak**

Euskadiko Kirol Portuak erakundearen zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, Lekeitioko portuaren barruan zenbait amarraleku, parkeko pantalan eta buiak aldatzeko administrazio-espedienteari ekin zitzaion. Zehazki, jarduketa hauek planteatu ziren:

- Parkeko pantalanari dagokionez: gaur egun libre dauden bi amarraleku kentzea (P20 eta P25) eta irabazitako espazioa P11 eta P36 plazen artean banatzea, plaza bakoitzaren zabalera gutxi gorabehera 15 cm handituz. Gainera, P01 plazaren muturra 40 cm mugitzea Kontramaisua kairaino, P01 eta P04 arteko plazen maniobra-marjina gutxi gorabehera 15 cm handituz.
- Buien eremuari dagokionez: buien arteko distantzia 10 metrora handitzean datza jarduketa (gaur egun 8 metroko distantzia dago).

Ebazpen horren bidez, ebazpenaren eraginpean egon zitezkeen eskubide eta interesak zituzten interesdun guztiei jakinarazi zitzairen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Lekeitioko portuko iragarki-taulan argitaratu zela iragarri zen. Halaber, hamabost egun balioduneko epea

## RES. 61/24/12/12

---

eman zitzaien eskubide edo interes legitimoak kaltetuta izan zitzaketen pertsoneri egoki irizitako alegazioak eta/edo dokumentuak eta justifikazioak aurkez zitzen.

### 2. Aurkeztutako alegazioak

**Lehenengo alegazioa:** 2024ko otsailaren 26an alegazio-idazkia aurkeztu zuten Mikel Alexander García García jaunak eta beste 11 pertsonak, eta adierazi zuten administrazio-espeditentzaren Lekeitioko plazak esleitzeko deialdia egiteko prozedura aldatu nahi duela, eta, aldaketa soil batetik harago doanez, amarralekuen beste deialdi bat egin behar dela, publikitate eta berdintasun printzipioak errespetatuz. Horretarako, deialdi-prozedura hori eta eraturako emakidak baliogabetzea eta beste bat hastea eskatzen dute.

**Bigarren alegazioa:** 2024ko otsailaren 20an, Jesús Manuel Txopitea Bengoetxea jaunak idazki bat aurkeztu zuen, eta alegazio forma ez badu ere, alegaziotzat hartuko da. Idazki horretan, egungo 35 plazetatik 6k ez dutela espazioa handituko egiaztatzen ondoren, eskatzen du bere ontziak gaur egun okupatzen duen amarralekua (8. zenbakia) beste amarraleku batzuetan egingo diren aldaketan onuradun izan dadila, eta, hori posible ez bada, ebazpenean eta erantsitako txosten teknikoan deskribatutako neurrien onuradun den beste amarraleku batera aldatzeko eskatzen du.

### 3. Erantzuna lehenengo alegazioari

Lehenengo alegazioari dagokionez, alegazioa egin dutenek beren legitimazioa argudiatu dute "amarralekuak emateko deialdi-prozeduran beren ontziekin parte hartu zutelako". Legitimazio-eskaera hori ez da onartu behar; izan ere, jarraian azaltzen den bezala, prozedura honek amarralekuen emakida jakin batzuen egungo egoera aldatzeari egiten dio erreferentzia, eta ez 2022ko deialdiaren prozedurari, zeina irmoa baita jada. Testuinguru horretan, gehitu behar da

## **RES. 61/24/12/12**

---

parkeko pantalanean egin nahi diren aldaketek ez dietela inolaz ere eragiten alegaziogileen titulartasuneko emakidei; eta, buien eremuari dagokionez egin nahi diren aldaketei dagokienez, hobekuntza baino ez dutela bilatzen.

Aurrekoaz gain, Lekeitioko portuan amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura Euskadiko Kirol Portuak erakundearen zuzendariaren 2022ko maiatzaren 2ko Ebazpenaren bidez hasi zen. Ebazpen hori akatsak zuzentzeko 2022ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bidez zuzendu zen, eta Euskadiko Kirol Portuak erakundearen zuzendariaren 2022ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez amaitu zen. Ebazpen horrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko deialdi publikoa ebatzi zuen. Jarritako gora jotzeko errekurtsioak ebatzi ondoren, irmo bihurtu zen emakidak emateko ebazpena.

Prozedura hori amaituta dagoenez eta emakidak esleitzeko ebazpena irmoa denez, ez da bidezkoa prozedura hori errebokatzea, alegazio-idazkian eskatu bezala, eta ez dago prozedura hori deuseztatzeko arrazoirik, behar bezala garatu baitzen, berdintasun- eta publizitate-eskubideak erabat errespetatuz.

Horretaz gain, emandako emakida irmoak ere ez dira ezeztatuko.

Egungo egoera amarralekuak erabiltzeko emakiden multzo batena da. Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 46. artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek emakidak ofizioz berrikusteko aukera aitortzen du, kasu jakin batzuetan aldatzeko, besteak beste: "c) Portu-eremuari aplikatu beharreko planetara edo edozein araudira egokitzeko beharrezkoa denean, bai eta portu-interes orokorreko arrazoiengatik ere. Kasu horietan bakarrik emango zaio kalte-ordaina emakidadunari".

Horregatik guztiagatik, ezetsi egiten da lehenengo alegazioa.

#### **4. Erantzuna bigarren alegazioari**

Bigarren alegazioari dagokionez, ezin da onartu aldaketa horiek alegazioa egin duenaren amarralekuari, 8 zenbakikoari, zabaltzeko eskaera; izan ere, P06-P07 plazen artean dagoen banaketa pantalanaren zabalera-aldea dela eta, P07 plazaren istriborreko fingerrak ez du aukerarik ematen Kontramaisutzako kairako alboko desplazamendua egiteko. Horrez gain, elektrizitate- eta ur-hornidurako dorreen banaketa dago. Horrek guztiak aldaketa hori eragozten du. Amarralekua aldatzeko eskaerak ez du zerikusirik espediente honen xedearekin, eta eskaera hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Aginduan aurreikusitako prozedurari jarraikiz egin behar da. Agindu horren bidez, aisia-ontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautzen dira.

Horregatik guztiatik, ezetsi egiten da bigarren alegazioa.

Aurrekoa ikusita, onartezintasunaz gain, honako hau ebatzi da:

- Mikel Alexander García García jaunak eta beste 11 pertsonak 2024ko otsailaren 26ko idazkian egindako alegazioa ezestea.
- Jesús Manuel Txopitea Bengoetxea jaunak 2024ko otsailaren 20ko idazkian aurkeztutako alegazioa ezestea.

**RES. 61/24/12/12**

---

Era berean, aurrekoarekin bat etorriz, eta Euskadiko Kirol Portuak erakundearen estatutuen 15.2 artikulua zuzendaritza honi ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Parkeko pantalaneko amarralekuetan eta Lekeitioko portuko buietako amarralekuetan aldaketak egitea onartzea, portua ustiatzeko arduradunak 2023ko abenduaren 13an egindako txostenean zehaztutako baldintzetan.

Egingo diren jarduketak:

- 1.- Parkeko pantalanari dagokionez: gaur egun libre dauden bi amarraleku kentzea (P20 eta P25) eta irabazitako espazioa P11tik P36ra bitarteko plazen artean banatzea, plaza bakoitzaren zabalera gutxi gorabehera 15 cm handituz. Gainera, P01 plazaren muturra 40 cm mugitzea Kontramaisua kairaino, P01etik P04ra bitarteko plazen maniobra-marjina gutxi gorabehera 15 cm handituz.
- 2.- Buien eremuari dagokionez, buien arteko distantzia 10 metrora handitzean datza jarduketa (gaur egun 8 metroko distantzia dago).

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau jakinaraztea haren eraginpean egon daitezkeen eskubide eta interesak dituzten interesdun guztiei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Eta, gainera, lege horren 45. artikulua aplikatuz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Lekeitioko portuko iragarki-taulan argitaratuko dela iragartzea.

**RES. 61/24/12/12**

---

**HIRUGARRENA.**- Hilabeteko epea ematea, jakinarazpen pertsonala egin eta iragarkia EHAAn eta portuko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari gora jotzeko errekurtsua aurkezteko. Horretarako, PACAPen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten den legezko edozein bide erabili ahal izango da.

Gasteizen, 2024ko apirilaren 19an.

**EDURNE EGAÑA MANTEROLA**  
**EUSKADIKO KIROL PORTUAK**  
**ZUZENDARIA**